Ez da kasualitatea, patua baizik.
Bilatzen duguna baino ez dugu aurkitzen,
eta bihotzaren barru-barruan dagoen hori da
bilatzen duguna.

ERNESTO SÁBATO

Emakumeen Genitalen Mutilazioa jokabide zitala da, eta herrialde garatuetan bizi garenontzat ezkutuan geratzen da. Osasun-profesionalek osasun-arazotzat eta emakume nahiz haurren eskubideen urraketa larritzat hartu behar dugu EGMa; bestela, nekez lagun dezakegu jokabide horren prebentzioan eta gure autonomia-erkidegoan praktika hori jasan dezaketen neskatxa eta emakumeengan izan ditzakeen ondorioak saihesten.

Idazketa taldea

OSAKIDETZATIK

- Maite Aranzabal (Arabako ESIko pediatra. Lakua OZ).
- Susana Esteban (Bilbao-Basurto ESIko pediatra. La Merced OZ).
- Iñaki Gallo (Bilbao-Basurto ESIko gizarte-langilea).
- Pilar Isla (Bilbao-Basurto ESIko Erizaintzako zuzendariordea).
- Isabel Labaca (Donostialdeko ESIko emagina. Errenteria-Beraun OZ).
- Margarita López (Barakaldo-Sestao ESIko familia-medikua. La Paz OZ).
- Maite Paino (Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzako teknikaria).
- Amelia Valladolid (Bilbao-Basurto ESIko ginekologoa).

OSASUN SAILETIK

- Txus Ciarrusta (Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetzako teknikaria).
- Pepe Quintas (Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendariordea).

EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDETIK

- María Socorro Álvarez (Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzearen Arloko teknikari arduraduna).

Aurkezpena

Gidaliburu honen bitartez, gaur egun emakumeen genitalen mutilazioari (aurrerantzean, EGM) buruz dakiguna zabaltzea lortu nahi dugu, bai eta EAEko osasun-arloko eta arlo soziosanitarioko profesionalei nola jardun behar duten gomendatzea ere, horrelako praktikak egiten dituzten herrialdeetatik datozen etorkinen komunitateekin lan egin behar dutenerako. Helburua zera da, horrelako praktikak jasan dituzten emakume eta neskei arreta emateko jardun eraginkorrak eskaintzea eta, bereziki, gure autonomia-erkidegoan bizi diren neskatxa gehiago EGMaren biktima izan daitezen saihestea.

Izan ere, horrelako praktikak egiten diren herrialdeetatik etorritako emakumeak Euskadiko osasun-zerbitzuetara joaten hasi direlarik, egoera horiek nola errekonozitu eta egoera horien aurrean nola jokatu behar den azaldu nahi dugu tresna honen bitartez.

Osasun-arloko profesionalei eta arlo soziosanitarioan lan egiten dutenei lanerako euskarri bat eskaini nahi diegu genitalen mutilazioa jasan duten emakumeak modu atsegin eta profesionalean artatu eta tratatu ditzaten, eta zenbaitetan gertatu ahal izan denez, harridurazko edo jakin-minezko adierazpenak saihesteko. Emakume horiekin eta haien ingurunearekin konfiantzazko harremana lortzea da gure xedea; izan ere, emakume horiek eta beren bikotekideek beren gorputzaren eta beren ongizatearen beste kontzientzia bat hartzeko abiapuntua da hori, eta hartara, elkarrizketaren bitartez haien alabek ere mutilaziorik jasan behar ez izatea lortu nahi dugu.

Dokumentuak bi atal ditu, elkarren mendekoak: lehenengo atala sozio-antropologiko, etiko eta juridikoa da; zati horretan, fenomenoaren motibazio psikologiko, ekonomiko, sozial eta kultural sakonak bildu ditugu, fenomenoak Euskadin zenbateko dimentsioa duen azalduko dugu, moralki onartezina den praktika baten oinarri etikoa aurkeztu, eta fenomenoari aurre egiteko zer lege-tresna ditugun adierazi. Bigarren atalean, aldiz, jarraibideak emango dizkiegu osasun-arloan eta arlo soziosanitarioan etorkinen komunitateekin lan egiten dutenei, EGMaren prebentzioa eta arreta behar bezala landu ditzaten lanbide-jardunean.

Horregatik guztiagatik, gidaliburu honen lehenengo zatia bigarrena bezain garrantzitsua da. Ez dugu nahi arazoari osasun-arlotik begiratzen dion ikuspegi bakarra eskaini, zeren EGMa ez baita patologia bat, kontzientzia indibidualean eta kolektiboan errotuta dauden sinesmenen ondorio baizik, eta pertsonaren osasunaz arduratu nahi badugu, sinesmen horiek ezin ditugu alde batera utzi.

Baina gidaliburu hau argitaratzea ez da, berez, helburua, ezta bidearen amaiera ere. Helburua EGMa desagerraraztea da, eta gidaliburu hau helburua betetzeko bidearen hasiera baino ez da. Hemendik eta une honetatik aurrera, lan hau zuzenki inplikatutako profesionalen artean zabaldu behar dugu, eta prebentzio-ekintza eraginkorra ahalbidetuko duten trebetasunak eta jakintza eskuratzeko beharrezkoa den prestakuntza programatu beharko dugu.

Giza Eskubideen Adierazpenaren oinarri diren printzipio eta balioekin, pertsonen duintasunarekin, emakumeen oinarrizko askatasunak baliatzearekin eta adingabeko nesken interes handiena lortzearekin bat ez datozen kultura-tradizioak zilegiztatzeari aurka egitea da lan honen funtsezko premisa.

Jon Darpón Sierra
Osasuneko sailburua

Jon Etxebarria Cruz
Osakidetzako Zuzendari Nagusia